

3/12

*irizpena*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
KULTU-ZENTROEI  
legearen Aurreproiektuari buruzkoa

Bilbon, 2012ko otsailaren 22an



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

The background features a series of overlapping, thin, light blue circles that create a complex, organic pattern. A solid, medium-blue horizontal bar spans across the middle of the page, partially overlapping the circular pattern. The text 'irizpena' is positioned on the right side of this bar, with the 'i' being lowercase and italicized, and 'rizpena' being lowercase and in a regular serif font. To the right of the bar, the text '3/12' is displayed in a white, sans-serif font.

*i*rizpena

3/12



## I.- AURREKARIAK

---

2012ko urtarrilaren 11n Justizia eta Herri Administrazio Sailak igorritako idazkia jaso zuen Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak. Bertan Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-zentroei buruzko Legearen Aurreproiektuari buruzko txostena eskatzen zen, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraiki.

Idazkia jaso ondoren, berehala bidali zitzaien agiriaren kopia bana Batzordeko osoko bilkurako kide guztiei beren proposamenak eta iritzia helaraz zitzaten ondoren Lan-batzorde egokiari igorri ahal izateko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu-araudian ezarritakoari jarraiki.

3/12j

Gizarte-garapenerako Batzordea 2012ko otsailaren 3an bildu zen Irizpenaren Aurreproiekturako lehenengo proposamenaz eztatatzeko. Egun berean onartu zen Euskadiko EGABren 2012ko otsailaren 22ko Osoko Bilkurari aurkeztutako Irizpen proiektu hau, eta aho batez onartu zen.

## II.- EDUKIA

---

Legearen Aurreproiektuari buruzko testua Hitzaurreak, 5 kapitulutan eta 3 Xedapen Gehigarritan banatutako 16 Artikuluk, 4 Xedapen Iragankorrek eta 2 Azken Xedapenek osatzen dute.

### XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea
2. artikulua.- Printzipioak eta eskubideak
3. artikulua.- Aplikazio-eremua
4. artikulua.- Kultu-zentroaren definizioa
5. artikulua.- Guztiei aplikatzeko araudia

**LEHENENGO KAPITULUA.- Hirigintzako antolamenduan jasotako kultu-askatasuna**

6. artikulua.- Hirigintzako antolamendua eta EAEko botere politikoen betebeharrak kultu-tokiei dagokienean
7. artikulua.- Hirigintzako antolamendu planek xedatutako erlijio-erabilerak
8. artikulua.- Ekipamendu edo espazio publikoak aldi baterako edo noiz-behinka erabiltzea erlijio-xedeekin.

### **BIGARREN KAPITULUA.- Kultu-zentroak (eta bestelako erlijio-guneak) irekitzeko baimena**

9. artikulua.- Kultu-zentroak (eta erlijio-erabileradun bestelako guneak) irekitzeko eta erabiltzeko udal-lizentzia
10. artikulua.- Kultu-zentroek derrigor bete beharreko segurtasun eta osasungarritasun arloko baldintza materialak eta teknikoak
11. artikulua.- Kutsadura akustikoaren kontrako babesa
12. artikulua.- Kultu-zentroak irekitzeko araudi-baldintzak betearazteko neurriak (zehatzeko asmorik gabeak)

### **HIRUGARREN KAPITULUA.- Hirigintzako lizentziak eta bestelako baimenak**

13. artikulua.- Hirigintzako lizentziak
14. artikulua.- Bestelako baimenak

### **LAUGARREN KAPITULUA.- Administrazio-, irekiera- eta hirigintza-prozedurei buruzko ohiko xedapenak**

15. artikulua.- Administrazio-espeditente bakarra

### **BOSGARREN KAPITULUA.- Erlijio- edo kultu-tokiak xedatzeko prozeduretan erakunde erlijiosoek duten partaidetza**

16. artikulua.- Sinesbide edo erlijio-komunitateen partaidetza kulturako edo bestelako erlijio-jardueretarako espazio publikoen erabilerari loturiko administrazio-prozeduretan

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Hitzaurrea**

Aipatutako legez, antolamendu juridiko demokratiko guztiek eta Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Zuzenbideak onartzen dute erlijio- eta kultu-askatasuna pertsona ororen oinarritzko eskubidea dela.

Mendeetan zehar EAEko gizartea nahiko homogenea izan bada ere erlijio-adierazpenei dagokienez, gaur egungo egoeran aniztasuna eta pluraltasuna dira nagusi. Euskal gizartean dagoen erlijio-aniztasun horrek gizarte-faktore ezberdinetan du jatorria, besteak beste, migrazio-mugimenduetan.

Errealitate plural berri horrek eragina du, besteak beste, kulturako zentro edo espazioen kontuan, eta indarrean dagoen antolamendu juridikoak ez die arauketarako tresna nahikorik ematen erakunde publikoei errealitate horrek sortzen dituen gai eta eskari asko kudeatu ahal izateko.

Erljio-askatasunari buruzko 1980ko uztailaren 5eko Lege Organikoak, bigarren artikuluan, kultu-tokiak zein erlijio xededun bilera-lekuak ezartzeko eskubidea bermatzen die Eliza, Sinesbide eta erlijio-komunitateei. Estatuko legediak kultu-toki gisa definitzen ditu otoitzerako zein erlijioari loturiko prestakuntza edo laguntza emateko “bakarrik” diren “eraikin edo lokalak”. Kultu-zentro izendapena lortzeko ez da nahikoa legez jasotako xedeak betetzea, sinesbide bakoitzeko erlijio-agintariek emandako berariazko “ziurtagiria” ere behar baita.

Hala ere, Estatuko nahiz Autonomia Erkidegoetako hirigintzako araudietan oraindik ez da berariazko estandarrik finkatu halako “erlijio-ekipamenduei” dagokienean. Salbuespen bakarra Kataluniako Autonomia Erkidegoak emandako kultu-zentroeiei buruzko uztailaren 22ko 16/2009 Legea da.

Horrenbestez, ezinbestekoa da gure Erkidegoari kulturako espazio eta zentroi buruzko berariazko araudia ematea, administrazio publikoei erlijio-askatasunerako eskubidea babestu ahal izateko eta hirigintzako planteamendu orokorraren baitan eskubide horiei lotuta sor daitezkeen eskabideak administratzeko kudeaketa-irizpide egoki eta sendoak eman ahal izateko.

Testuinguru horretan, eskudun administrazioek beharrezko lur-erreserbak ezar ditzaten eta kulturako zein bestelako erlijio-xedeetarako espazioak ireki eta erabiltzeko ezinbesteko baldintza tekniko eta materialak finkatzeko behar diren neurriak xedatzen ditu Lege honek.

3/12*i*

Legearen xedeetako bat erlijio-askatasunerako eskubidea erabiltzea erraztea da, baina baita euskal administrazio publikoei, eta bereziki tokiko administrazioei, eskubidea bera eta kultu-espazioen baldintza egokiak bermatzeko erreferentzia-irizpideak ematea ere, horrela pertsonen eskubide guztiak errespetatu ahal izateko. Horrenbestez, arauak horrela aginduta, hirigintza-antolamendurako udal planetan erlijio-erabilerarako ekipamendu komunitarioak ezartzeko lur-erreserbak aurreikusi behar dira.

Kultu-tokiak irekitzeko lizentzia ezartzeak aplikatu beharreko prozedura administratiboa zehazteko balioko du, koherentzia administratiboa emango die udalerrien erabakiei eta, horrenbestez, segurtasun juridikoa emango die tartean diren erlijio-komunitatei.

### Xedapenak

1. artikulutik 5. artikulura bitartean luzatzen diren *Xedapen Orokorretan* honakoa arautzen da:

- Legearen helburua. Erlijio-askatasunerako funtsezko eskubidea bermatzea, sinesbide edo erlijio-komunitate ezberdinen artean inolako diskriminaziorik sortu gabe. Hori lortu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio eskudunek hirigintza-antolamenduan beharrezko lur-erreserbak ezartzeko eta kultura zein bestelako erlijio-xedeetara bideratutako espazioak ireki eta erabiltzeko orduan eska daitezkeen baldintza tekniko eta materialak finkatzeko behar diren neurriak xedatzen ditu Legeak.

- Printzipioak eta eskubideak, besteak beste: erlijio- eta kultu-askatasuna bakarka edo taldean benetan erabili ahal izateko bermea; erlijio-talde eta sinesbide ezberdinen arteko tratuan berdintasuna bermatzea; espazioak irekitzean eta erabiltzean segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik onenak bermatzea eta finkatzea; eta EAEn ordezkariak duten sinesbide eta erlijio-komunitate orok beren erlijio- eta kultu-askatasuna erabiltzeko tokiak edukitzeko duten eskubidea bermatzea.
- Aplikazio-eremua: aldi baterako nahiz noizbehinka erlijioari loturiko jarduerak egiteko erabiltzen diren kultu-zentro, espazio eta ekipamendu publikoak; erlijio-sinesbide ezberdinetako hilerriak, eta lurperatzeko tokiak gordetzea. Ezingo dira aplikatu titulartasun publikodun erietxeetan, arreta-zentroetan ez ikastetxeetan, tanatorioetan eta espetxeetan, horietan gaiari buruzko berariazko araudia aplikatu behar baita.
- Kultu-zentroaren definizioa.
- Guztiei aplikatzeko araudia.

***Lehenengo kapitulua kultu-askatasunak hirigintza-antolamenduan duen tokiari*** buruzkoa da, eta 6. artikulutik 8. artikulura luzatzen da.

*Hirigintzako antolamendua eta EAeko botere politikoen betebeharrak kultu-tokiei dagokienean* izeneko 6. artikulua xedatzen du EAeko administrazio publikoek hirigintzako plangintza-sistemetan hizpide dugun eskubidea bermatzeko premiazko neurriak hartuko dituztela eta horretarako behar diren espazioak emango dizkietela zuzeneko zein zeharkako edozein diskriminazio edo muga arbitrario ekiditeko.

*Hirigintzako antolamendu planek xedatutako erlijio-erabilerak* izeneko 7. artikulua xedatzen du udalek egiten dituzten hirigintza-antolamenduko plan berriek kultu- edo erlijio-toki gisa erabiltzeko espazio nahikoa gorde behar dutela, beti ere erabilgarri dagoen lurzoru-kopuruaren arabera; gainera, udalek ezingo dute zuzenean nahiz zeharka diskriminaziorik eragin dezaketen irizpiderik erabili.



8. artikulua *ekipamendu edo espazio publikoak aldi baterako edo noizbehinka erlijio-xedeekin erabiltzeari* buruzkoa da.

***Bigarren kapituluak kultu-zentroak (eta bestelako erlijio-guneak) irekitzeko baimenari*** loturiko guztia hartzen du bere gain.

9. artikulua xedatzen du beharrezkoa dela udal-lizentzia edukitzea kultu-zentro berri bat ireki eta abian jarri ahal izateko, edo bertan obra handizat jotzen diren lanak egin ahal izateko. Aipatzen du lizentziaren ordezkari aldez aurretiko jakinarazpena eskatu ahal izango dela, baldin eta lokalek ez badute arauz ezarritako edukiera gainditzen. 10. artikulua *kultu-zentroek derrigor bete beharreko segurtasun eta osasungarritasun arloko baldintza materialak eta teknikoak* arautzen ditu. 11. artikuluan aipatzen da kultu-zentroek kutsadura akustikoari buruzko *ingurumen-araudia* bete beharko dutela. 12. artikulua kultu-zentroak irekitzeko araudi-baldintzak betearazteko neurriak (zehatzeko asmorik gabeak) xedatzen ditu; bertan jasotakoaren arabera, lokalak itxi edo hustu egin ahal izango dira, eta kasuaren arabera, tokia zigilatu ahal izango da.

***Hirugarren kapitulu***an, alde batetik, ***hirigintza-lizentziak*** aurkezten dira (13. artikulua) hirigintza-lizentzia eskatzen duten jarduerak zehaztuta, eta bestetik ***bestelako baimenak*** aipatzen dira (14. artikulua), eta azaltzen da hitzaldiak zein kulturari eta aisialdiari loturiko beste edozein jarduera egiteko ez dela halakorik behar.

***Laugarren kapitulu***ak artikulua bakarra du, 15. artikulua, eta aipatzen du hirigintza-lizentzia zein kultu-zentroak irekitzeko eta abian jartzeko udal-lizentzia ***administrazio-espeditente bakar***ean izapidetu behar direla.

***Bosgarren kapitulu***ak ***sinesbide edo erlijio-komunitateek kulturako edo bestelako erlijio-jardueretarako espazio publikoen erabilerari loturiko administrazio-prozeduretan duten partaidetza*** arautzen du. Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek erlijio- eta kultu-askatasunen erabilerarengan eragin zuzena izan dezaketen ekimenak eta erabakiak abian jarri gero horien berri emateko eta aholkuak emateko aholkularitza-batzorde bat sortuko dela aipatzen du. Batzorde horretan Foru Aldundietako eta

Udaletako ordezkariak, adituak eta hizpide dugun legea aplikatzea interesatzen zaien bestelako herritarren elkarteetako ordezkariak bilduko dira.

## XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa* Vatikanoarekin eta bestelako eliza, sinesbide eta erlijio-komunitateekin egindako hitzarmenei buruzkoa da. *Bigarrena* lizentziak lortzeko ziurtagiriari buruzkoa da. *Hirugarrena* zuzeneko eta zeharkako diskriminazioari buruzkoa da. Zuzeneko diskriminazioak irekiera eta funtzionamenduarekin du lotura, eta zeharkako diskriminazioa da, esaterako, itxuraz neutroa den hirigintza-antolamenduko udal-plan batek, lizentzia edo emakida batek, irizpide batek nahiz praktika batek desabantaila jakin bat eragitea kultu-askatasuna erabiltzeko eskubidean.

3/12j

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

*Lehenengoak* hirigintza-antolamenduko udal-planen Legera egokitzea aurreikusten du. *Bigarrenak* Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen Inbentarioan sarturiko zentroei aplikatu beharreko legedia xedatzen du. *Hirugarrenak* Euskal Kultur Ondarearen Inbentarioan ez dauden zentroak arautzen ditu. Eta *Laugarrenak* kultu-zentrozen baldintza tekniko eta materialetara egokitzeko epea jasotzen du.

## AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa* araudiaren garapenari buruzkoa da eta *Bigarrena*, aldiz, Legea indarrean jartzeari buruzkoa.

## III.- GOGOETAK

---

### III.1 Gogoeta Orokorrak

Euskadiko EGAB bat dator Lege Aurreproiektu honen hitzaurrean suma daitekeen filosofiarekin, uste baitu azken hamarkadetan erlijio-fenomenoek aldaketa garrantzitsuak jasan dituztela gure inguruko gizarteetan.

Gaur egun, euskal gizartean gero eta erlijio-pluraltasun handiagoa dago eta aniztasun hori gizarte-faktore ezberdinek eragiten dute, hala nola, migrazio-fluxuek, talde ezberdinen artean gizarte-harremanak ezartzeko aukera handiagoak (komunikazio-bide berriak ekartzen ditu horrek), berrikuntza teknologikoen eta gizarteak bizi-esperientzia gehiago eskaintzeak. Hori guztia dela eta, erlijio-aniztasunak gero eta garrantzi handiagoa du gizartean, beraz, aniztasun hori behar bezala kudeatu behar dute eragile publikoek.

Horrenbestez, uste dugu Lege Aurreproiektua bidezkoa eta egokia dela, bereziki kontuan hartzen badugu azken aldian zenbait sinesbidetako kultu-lokalak ezartzearen kontrako ekintzak izan direla. Horrek zaildu egiten du, are gehiago, zuzenean urratzen du, Konstituzioaren 16. artikuluan bermatzen den erlijio-askatasunerako eskubidea erabiltzeko aukera.

Positiboki baloratzen dugu Lege Aurreproiektu honen xedea, hots, “erlijio-askatasunerako eskubidea erabiltzea erraztea, baina baita euskal administrazio publikoei, eta bereziki tokiko administrazioei, eskubidea bera eta kultu-espazioen baldintza egokiak bermatzeko erreferentzia-irizpideak ematea ere, horrela pertsonen eskubide guztiak errespetatu ahal izateko”.

Horrenbestez, arauak horrela aginduta, hirigintza-antolamendurako udal planetan erlijio-erabilerarako ekipamendu komunitarioak ezartzeko lur-erreserbak aurreikusi behar dira zalantzarik gabe.

Kultu-tokiak irekitzeko berariazko lizentzia ezartzeak aplikatu beharreko prozedura administratiboa zehazteko eta adosteko balioko du, koherentzia administratiboa emango die udalerrien erabakiei eta, horrenbestez, segurtasun juridikoa emango die tartean diren erlijio-komunitateei.

Hala ere, egokia izan arren, uste dugu badaudela hobetu beharreko zenbait kontu.

## III.2 Berariazko Gogoetak

### 7. artikulua.- Hirigintzako antolamendu planek xedatutako erlijio-erabilerak

- 1. atalari dagokionez, uste dugu lurzorua erreserbatzeko beharra ez litzatekeela lurrik libre dagoen edo ez kontuan hartuta ezarri behar, aitzitik: *“Euskal Autonomia Erkidegoko Udalek egindako hirigintza-antolamendurako plan berriek kultu- eta erlijio-toki moduan erabiltzeko lurzoru eta espazioa gorde behar dutela”*

Era berean, deigarri egiten zaigu lurzoru- eta espazio-erreserbak udalerrri bakoitzeko premien eta eskarien arabera egitea, baina ez aipatzea udalerrri bakoitzak nola kalkula ditzakeen premia eta eskari horiek.

Konponbidea legeak berak 16. artikuluan xedatzen duen batzordearen bidez bideratu nahi bada, uste dugu ez dela konponbiderik egokiena, besteak beste, batzordeko kideak zeintzuk diren ikusita. Izan ere, ez dugu ulertzen adibidez Foru Aldundiek nolako eginkizuna izan dezaketen udalerrri bakoitzak kultu-zentroetarako egin beharreko lur-erreserben aholkularitza-prozesuan. Batzorde horren inguruko berariazko aipamena egingo dugu aurrerago.

- 3. atalean kultu-tokiak jartzeko tokirik egokienak aipatzen dira. Azkenean paragrafo bat gehitzea proposatu nahi dugu, “bazterkeria-espazioak” sortzeko arriskua, hirigintza-antolamendu jakinei jarraiki kultu-tokiak udalerrrien aldirietan ezartzeko arriskua eta antzekoak kontuan hartzeko.

Horrenbestez, paragrafoaren amaieran honakoa gehitzea proposatzen dugu:

*“3.- Udalek hirigintza arloan dituzten eskumenak erabili ahal izango dituzte erlijio-ekipamenduak eta kultu-tokiak ezartzeko lekurik egokienak zehazteko orduan, beti ere komunitatearen interes orokorra babestuta eta elkarbizitza*

*zein gizartearen kohesioa sustatuta. Horretarako erlijio-komunitate ezberdinen erlijio- eta kultu-askatasuna, duintasuna eta pertsona ororen eskubidea errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartu behar ditu, bazterketa-espaziorik sortuko ez dela eta kultu-zentroak udalerrien aldirietara eramango ez direla bermatuta.”*

### **16. artikulua.- Sinesbide edo erlijio-komunitateen partaidetza kulturako edo bestelako erlijio-jardueretarako espazio publikoen erabilerari loturiko administrazio-prozeduretan**

- 1. atalean “*elizek, sinesbideek eta erlijio-komunitateek kultu-tokietarako zein erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako tokiak zehazteko eta esleitzeko prozeduran*” duten partaidetza xedatzen da, eta alderdi hori izan daiteke udalerriei beren lurraldeko premiak eta eskariak behar bezala zehazten hobekien lagunduko diena.
- Hala ere, artikulua Legearen izpirituaz haraindi doa (legea kultu-zentroetara mugatzen da), 2. atalean batzorde bat xedatzen baitu “*Autonomia Erkidegoaren eta sinesbide zein erlijio-komunitate ezberdinen arteko elkarrizketa eta elkarlan instituzionalerako organo gisa*”. Ez dugu zalantzan jartzen mota horretako batzorde baten premia, baina gure ustez, Aurreproiektu honen jarduera-eremutik kanpo dago legea hirigintza-antolamenduan zentratzen baita. Horrenbestez, uste dugu batzorde hori ez dela Lege honen baitan sartu behar.

### **Laugarren Xedapen Iragankorra. Kultu-zentroak baldintza tekniko eta materialetara egokitzeko epea**

Kultu-zentroek bost urteko epea dute beren baldintza tekniko eta materialak Legeak (indarrean dagoenean) xedatzen duenera egokitzeko, baina Batzorde honen iritziz epe hori gehiegizkoa da.

Euskadiko lurzoruari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ekipamendu komunitario pribatu gisa hartzen ditu kultu-zentroak, merkataritza-zentroak, kiroldegiak, kultura-zentroak eta abar bezalaxe.

Hori “Kultu-zentroak irekitzeko araudi-baldintzak betearazteko neurriak zehatzeko asmorik gabeak” izeneko 12. artikuluari lotuz gero, badirudi legegilea Auzitegi Konstituzionalaren doktrinak ezartzen duen “laikotasun positiboaz” haraindi doala eta ez duela berdintasun-printzipioa betetzen.

#### IV.- ONDORIOAK

---

Euskadiko EGABek uste du egokia dela Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-zentroi buruzko Legearen Aurreproiektua bideratzea erakunde honek egindako gogoetak kontuan hartuta.

3/12 

Bilbon, 2012ko otsailaren 22an

Presidentea O.E.  
Juan María Otaegui Murua

Idazkari nagusia  
Francisco José Huidobro Burgos









CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Arazoetarako Batzordea

©Argitalpena: Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Gran Vía 81, 7. solairua  
48011 Bilbao. Bizkaia  
[www.cesvasco.es](http://www.cesvasco.es)

Maketazioa: EEGAB

Inprenta: Imprenta Gestingraf

Lege Gordailua: BI-541-11